

ESKOLAGUNE

Bigarren Hezkuntza (Bigarren Zikloa)

## Ekoetxea Azpeitia

**ARLO/IKASGAIA:** Bioloia eta geologia

# Aldaketa klimatikoa jokoan

Klima-aldaketak gero eta eragin handiagoa du gure inguruan, eta horren ondorioak eguneroko bizitzan ikus daitezke: tenperaturen igoera, lehorteak, kutsadura edota biodibertsitatearen galera. Ikas egoera honen bidez, ikasleek arazo horien arrazoiak eta ondorioak aztertuko dituzte, baita eguneroko ohiturek ingurumenean duten eraginaz hausnartu ere.

Horrez gain, irtenbide jasangarriak ezagutuko dituzte, eta esperientzia ur-errota baten bisitarekin amaituko da. Bertan, uraren indarra energia eta irina ekoizteko nola erabiltzen den ikusiko dute, iraganeko jakintza eta gaur egungo iraunkortasuna lotuz.

ekoetxea Euskadiko Ingurumen zentroen sarea Red de Centros Ambientales de Euskadi
ihobe Ingurumen hobekuntza mejora ambiental
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO